

INAUTERIETAKO ARGAZKI LEHIAKETAREN OINARRIAK

1. Andoaino Udaleko Kultura Batzordeak argazki lehiaketa deitzen du 2019. urteko inauterietako kartel iragarlea eta programaren azala osatzeko.
2. Lehiaketa herri mailakoa da eta horretan parte hartu ahal izango dute 14 urtetik gorako pertsonak, Andoain bizi, ikasi ala lan eginez gero.
3. **Gaia Andoaino Inauteriak** izango da, eta edukiari eta ideiarri dagokienez, lanek jatorrizkoak izan beharko dute.
4. Argazkiak Andoaino inauterietan ateratakoak behar dute izan **eta ez dute pertsonen aurkako edozein eratako errespetu falta erakusten duten jarrerarik aurkeztuko**
5. **Lanak** bi modutan aurkez daitezke, **paperean edo formato digitalean**. Argazkiak oinarritzko prozesaketa zein prozesaketa garatuaren bidez (zonen bidezko prozesaketa, adibidez) eralda daitezke.
6. Paperean **aurkezten** diren lanak **BASTERO KULTURGUNEAN** aurkeztuko dira **2018ko otsailaren 22an**, osteguna, goizeko 10:00etatik 13:00etara edota arratsaldeko 16:30etatik 19:30etara. Lanekin batera gutun-azal itxi bat ere aurkeztuko da, barruan egilearen izen-deiturak, helbidea eta telefonoa idatzi beharko direlarik. Gutun-azalaren kanpoaldean zein argazkien atzealdean, lema edo izenburua baino ez da idatziko.
7. **Formato digitalean aurkezten badira** berriz, posta elektroniko honetara bidali beharko dira **kultura1@andoain.eus 2018ko otsailaren 22an, osteguna**. Posta elektronikoz aurkezten diren lanen kasuan, dokumentu aparte bat erantsiko da non lema edo izenburua jarriko diren eta egilearen izen-deiturak, helbidea eta telefonoa ere idatziko dira. Artxiiboak 8MG baino txikiagoak izango dira.
8. Partaide bakoitzak, gehienez ere, 4 aurkeztu ahal izango ditu, txuri-beltzean ala koloretan.
9. Epaimahaia Kultura Batzordeko kide batek eta bi artistek, kritikari edo profesionalak, osatuko dute, eta bere erabakia apelaezina izango da. Erabakia prentsaren bidez ezagutaraziko da, baita sariak banatzeko eguna eta ordua ere.
10. Epaimahaiaren iritziz ezaugarriak egokienak dituen lanarentzat **250 euroko** sari bakarra ezarri da. Dena den, Epaimahaiaren iritziz, aurkeztutako lanen artean ez badago bakar bat ere saria jasotzeko adinako kalitate daukanik, lehiaketa hutsik utzi ahal izango du.
11. Saritutako lana Andoaino Udalaren jabetzapean geratuko da eta nahi hainbat erreproduzio egiteko eskubidea izango du. Erreproduzio horiek egoki deritzon publizitate lanetan erabiltzeko ahalmena izango du udalak eta kasu horietan autoreek ez dute inolako erreklamaziorik egiteko eskubiderik izango, eta jadanik eskuratutako sariaren zenbatekoaz gain beste diru-kopururik ere ezingo dute jaso.
12. Saritu gabeko argazkiak jasotzeko eguna (paperean aurkeztu diren kasuetan): **martxoak 5**, astelehena, goizeko 10:00etatik 13:00etara edota arratsaldeko 16:30etatik 19:30etara. Behin epe hori iragan ondoren, autoreek obrak berreskuratzeari uko egin diotela ulertuko da eta, ondorioz, batzordea bilakatuko da berauen jabe. Egun horietatik aurrera interesdunek ez dute inolako erreklamaziorik aurkezteko aukerarik izango ez eta inolako kalte-ordainik eskatzeko aukerarik ere.
13. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea suposatzen du.

Andoain, 2017ko azaroa.

KULTURA BATZORDEA